

## Zorionak beti!



Gaur abuztuaren hamaseia da. Egun hau oso garrantzitsua da Gorkarentzat: bere urtebetetzea da. Gorkaren lagunak goiz altxatu dira oparia erosteko eta korrika joan dira Gorkaren etxera oparia ematera. Gorka etxean dago gurasoekin.

- Zorionak zuri! - abesten dute lagunek.
- Tori. Opari hau zuretzat da – dio Janirek.

Gorkak ez daki zer esan... Oparia niretzat da? Eskerrik asko! -esaten du Gorkak.

- Ez dago zergatik - dio Janirek.

Ama eta aita sukaldean daude. Txokolatada ederra prestatzen ari dira.

- Guztiok mahaira! - dio aitak.

- O! Txokolatea txurroekin - esaten du Gontzalek.

Gorka eta bere lagunak lasai jaten ari dira. Ez dute txurro bat ere utzi.

Aita eta ama tarta prestatzen ari dira sukaldean.

- Bukatu duzue? - galdetzen du amak.

- Bai, bukatu dugu - erantzuten dute guztiek.

Amak argia itzali du eta neska-mutilek ikarratuta daude.

- Zer da hau?

Aitak kandelak piztu ditu eta haurrak lasaitu egin dira.

- Nolako sustoa! – esaten du Gorkak.

- Hemen dator tarta! - esaten du aitak. Eta guztiek, poz-pozik, “Zorionak zuri!” abestu dute berriro ere.



# ZORIONAK BETI!

## Eman erantzuna galdera hauei:

1.- Zein egun da gaur?

.....

2.- Nora joan dira korrika Gorkaren lagunak?

.....

3.- Zertara joan dira Gorkaren etxera?

.....

4.- Norekin dago Gorka etxean?

.....

5.- Nortzu daude sukaldean?

.....

6.- Nola jaten ari dira Gorkaren lagunak?

.....

7.- Nork itzali du argia?

.....

8.- Zer piztu du aitak?

.....

9.- Non daude kandelak?

.....

10.- Zer ebestu dute neska-mitilek?

.....

.....